


MUÑOZABAL BASERRIA
A MAILA

PILLOTEGI BIDEA 29



Egilea eta data: ezezagunak

Deskribapena

Dimentsio txikietako baserría (180 m² inguruko oinplanoa du). Mendizorrotzen hegoaldeko isurialdean dago. Bi oin eta bi isurkiko estalkia ditu. Egitura zatituta dauka fatxada nagusiarekiko bi pilare errenkada paraleloren eta bi solairu mailen bidez. Hirugarren hormartearen altuera aldaketa hori atzealdea hartzen zuen antzinako dolarearen ondorio da. Tarteko hormartea, berriz, eskailerak hartzen du, eta fatxadako hormartea gelek hartzen dute. Azpaduretako eta izkinetako silarriko eta harlangaitz hormako eraikuntza sendoa nabarmentzen da. Zurezko estalkia du eta hiru fatxadatan teilatu hegala dauka. Laugarren fatxada, berriz, hormapiko gisa dago.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Kultura ondasun gisa, monumentu kategoriaz, deklaratu izanaren ondoriozkoa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Aginduaren bidez, EHAA 2011-01-14.
- * Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.